

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLA ETA ARMIÑONGO UDAL ELKARTZEA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik

Elkartze horren idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratu da 2018ko martxoaren 25ean.

133/2018 Foru Aginduen bidez, Elvira Ocio Vizuete eginkizunen metatze bidez idazkari izendatu zen (2018ko maiatzaren 18ko ALHAO, 58 zk.).

Idazkariak aurki lanpostuari uko egingo dio.

Bat etorri gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuarekin, lanpostua haietako batentzat gordeta dago, hain zuzen, idazkaritza-kontuhartzaila azpieskalako funtzionarioentzat.

Kontuan hartu da aipatutako errege dekretuaren 48. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa.

Kontuan hartu da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan xedatutakoa.

Horiek horrela, hau ebazten dugu:

Lehenengoa. Hamar egun ematea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, hautagaiek eskaerak egiteko; xedea da Berantevilla eta Armiñongo Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile plaza behin-behinean betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egingo dira. Azkeneko eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

Maila: 26.

Berariazko osagarria: 20.239,94 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Lurralde Politikako Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Bigarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoek xedatutako prozedurak.

Berantevilla eta Armiñon, 2018ko irailaren 14a

Alkatea

JUAN ANTONIO SANTAMARÍA

Alkatea

JUAN MUÑOZ

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:, udalerrria:; telefonoa:), estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioak, azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua betetzen dudanak, ondokoa

ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Berantevilla eta Armiñongo Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, titularra zendu delako, eta ALHAOn (....zk.) argitaratutako iragarkiaren arabera, hura aldi baterako betetzeko aukera dagoela, gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Betetzen ditudala, nire ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren betekizunak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez,

ESKATZEN DUT

Parte hartzea Arabako Berantevilla eta Armiñongo Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin betiko bete arte behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

- NANaren fotokopia
- Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

....., 2018koaren(a). 2018

Izenpea

BERANTEVILLAKO UDALA (ARABA)